OIARTZUNGO UDALA

| ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARI MOTARI DAGOKION PLAZA BEHIN BETIKO IZAERAZ BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUA (ARKITEKTO TEKNIKOA LANPOSTUARI DAGOKIONA): LEHEN PROBAREN A ZATIA | PROCESO DE SELECCIÓN PARA EL ACCESO A UNA PLAZA CORRESPONDIENTE A LA CLASE DE TÉCNICAS/OS MEDIOS DE LA SUBESCALA TÉCNICA DE LA ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL (CORRESPONDIENTE AL PUESTO DE ARQUITECTA/O TECNICA/O): PARTE A DE LA PRIMERA PRUEBA |
|---|---|

Oiartzunen, 2023ko azaroaren 7an

OIARTZUNGO UDALA

## ARIKETAREN EZAUGARRIAK ETA ZUZENKETA IRIZPIDEAK

Gaurko proba, lehen probaren A zatia, galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango dituzu. Galderak oinarri espezifikoen I. eranskineko gaitegi orokorraren ingurukoak izango dira.

**Ariketa egiteko 70 minutu izango dituzu**, **45 galderari erantzuteko, azken 5 galderak erreserbakoak dira.**

Laugarren oinarri espezifikoak xedatutakoaren arabera lehen probaren gehieneko balioa 60 puntukoa izango da (**A zatiak 0-20 puntu artean** eta B zatiak 0-40 puntu artean). **Erantzun oker bakoitzeko erantzun zuzen baten balioaren heren bat kenduko da, eta kanporatuak izango dira proba osoan 30 puntu edo gehiago eskuratzen ez dituztenak.**

**Gaur argitaratuko dira behin-behineko emaitzak eta hautagai bakoitza gainditu duen ala ez jakiteko B zatiaren emaitzak kontuan hartu beharko dira.**

**-------------------**

### CARACTERÍSTICAS DEL EJERCICIO Y CRITERIOS DE CORRECCIÓN

La prueba de hoy, parte A de la primera prueba, consistirá en un cuestionario de preguntas con varias alternativas de respuesta que versarán sobre el temario general contenido en el Anexo I de las bases específicas.

**Dispones de 70 minutos para hacer el ejercicio que consta de 45 preguntas, las cinco últimas de reserva.**

La base específica cuarta establece que la primera prueba tendrá un valor máximo de 60 puntos (de 0 a 20 puntos la parte A y 0 a 40 puntos la parte B). **Por cada respuesta errónea se descontará la tercera parte del valor de una respuesta correcta, y resultarán eliminados quienes no obtengan una puntuación igual o superior a 30 puntos en el conjunto de la prueba.**

**Hoy se publicarán los resultados provisionales de este ejercicio y para conocer si se ha superado o no la primera prueba, habrá que tener en cuenta los resultados de la parte B.**

OIARTZUNGO UDALA

**1.- Etxea bortxaezina da. Honek esan nahi du:**

a) Sarrera edo erregistro bat bera ere ezin izango da egin titularraren baimenik edo ebazpen judizialik gabe, delitu gori-goria izan ezik.
b) Udala eta bere agenteak libreki sar daitezke bertara hirigintzako arau-hausterik izanez gero.
c) Udala eta bere agenteak libreki sar daitezke hirigintzako arau-hausteren bat eginez gero, babes bereziko landa lurzorua bada bakarrik.
d) Udala eta bere agenteak ezin dira bertara sartu, salbu eta erregistroko jabeak edo benetako jabeak espresuki baimentzen badu notarioaren aurrean.

**1.- El domicilio es inviolable. Significa que:**

a) Ninguna entrada o registro podrá hacerse en él sin consentimiento de la persona titular o resolución judicial, salvo en caso de flagrante delito.
b) El Ayuntamiento y sus agentes pueden acceder libremente al mismo en caso de infracción urbanística.
c) El Ayuntamiento y sus agentes pueden acceder libremente al mismo en caso de infracción urbanística, sólo si se trata de suelo rural de especial protección.
d) El Ayuntamiento y sus agentes no pueden acceder al mismo, excepto que la o el propietario registral o real lo autorice expresamente ante notario.

**2.- Euskadiko Autonomia Estatutuaren arabera, Euskadiko eskumen esklusiboa da:**

a) Justizia Administrazioa.
b) Aduana eta muga-zergen araubidea; kanpo-merkataritza.
c) Defentsa eta indar armatuak.
d) Gizarte laguntza.

**2.- Según el Estatuto de Autonomía del País Vasco, es una competencia exclusiva del País Vasco**

a) Administración de Justicia.
b) Régimen aduanero y arancelario; comercio exterior.
c) Defensa y fuerzas armadas.
d) Asistencia social.

**3.- Adierazi hauetako zein EZ den Euskadiren eskumen esklusiboa:**

a) Ikuskizunak.
b) Turismoa eta kirola, aisia eta aisialdia.
c) Ogasun Orokorra eta Estatuaren Zorra.
d) Nekazaritza eta abeltzaintza, ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera.

**3.- Indicar cuál de las siguientes NO es una competencia exclusiva del País Vasco:**

a) Espectáculos.
b) Turismo y deporte, ocio y esparcimiento.
c) Hacienda General y Deuda del Estado.
d) Agricultura y ganadería, de acuerdo con la ordenación general de la economía.

OIARTZUNGO UDALA

**4.- Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legea:**

a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea aitortzen da, ahoz nahiz idatziz.
b) Herritarrek aukeratutako hizkuntza ofizialean arreta jasotzeko eskubidea dute.
c) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteek emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizial orok bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala egiteko.
d) Aurreko erantzunak zuzenak dira.

**4.- La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera:**

a) Se reconoce el derecho a relacionarse en euskera o en castellano oralmente y/o por escrito con la Administración y con cualquier Organismo o Entidad radicado en la Comunidad Autónoma.
b) Se reconoce a la ciudadanía el derecho a ser atendidos en la lengua oficial que elijan.
c) Se recoge que toda disposición normativa o resolución oficial que emane de los poderes públicos sitos en la Comunidad Autónoma del País Vasco debe estar redactada en forma bilingüe a efectos de publicidad oficial.
d) Las respuestas anteriores son correctas.

**5.- Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen arabera:**

a) Euskal Autonomia Erkidegoan herri-aginteek emandako xedapen arauemaile edo ebazpen ofizial orok, ahal dela, ele bitan idatzita egon behar du, publizitate ofizialaren ondorioetarako.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan herri-aginteek erabili behar dituzten jakinarazpen, administrazio-komunikazio, inprimaki edo eredu ofizialek elebitan idatzita egon beharko dute, salbu eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzen badute

c) Euskal Autonomia Erkidegoan herri-aginteek erabili beharreko jakinarazpen, administrazio-komunikazioa, inprimaki edo eredu ofizialek ele bietan egon behar dute beti.

d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**5.- De conformidad a la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera:**

a) Toda disposición normativa o resolución oficial que emane de los poderes públicos sitos en la Comunidad Autónoma del País Vasco debe estar preferentemente redactada en forma bilingüe a efectos de publicidad oficial.
b) Las notificaciones, comunicaciones administrativas e impresos o modelos oficiales que hayan de utilizarse por los poderes públicos en la Comunidad Autónoma del País Vasco deben tener tratamiento bilingüe, salvo que las personas interesadas privadas elijan expresamente la utilización de una de las dos lenguas oficiales.
c) Las notificaciones, comunicaciones administrativas e impresos o modelos oficiales que hayan de utilizarse por los poderes públicos en la Comunidad Autónoma del País Vasco deben tener tratamiento bilingüe siempre.
d) Ninguna de las anteriores es correcta.

**6.- Udalerria da:**

a) Udalerriko auzoen batura.
b) Probintzia-planetan barne hartutako lurraldea.
c) Udalak bere eskumenak erabiltzen dituen lurraldea.
d) Bat ere ez da zuzena.

**6.- El término municipal es:**

a) La suma de los barrios del municipio.
b) El territorio incluido en los planes provinciales.
c) El territorio en que el ayuntamiento ejerce sus competencias.
d) Ninguna es correcta.

**7.- Bizilagun izaera lortzen da:**

a) Udalerrian etxebizitza bat lortzen den unetik aurrera.
b) Biztanleen erroldan inskribatzen den unean bertan.
c) Udal zergen alta jakinarazten den unetik aurrera.
d) Aurreko hiru kasuetan.

**7.- La condición de vecino o vecina se adquiere:**

a) A partir del momento en que se obtiene una vivienda en el municipio.
b) En el mismo momento de su inscripción en el padrón de habitantes.
c) A partir del momento en que se notifica el alta en los impuestos municipales.
d) En cualquiera de los tres supuestos anteriores.

**8.- Udal antolaketak arau hauei erantzuten die:**

a) Udalerri guztietan daude alkatea, alkateordeak eta osoko bilkura.

b) Aurrekoez gain, Tokiko Gobernu Batzarra ere derrigorrezkoa da.

c) Tokiko Gobernu Batzarra 5.000 biztanletik gorako udalerri guztietan dago, eta biztanle gutxiagokoetan, berriz, erregelamendu organikoak hala xedatzen duenean edo Udalbatzak hala erabakitzen duenean.

d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**8.- La organización municipal responde a las siguientes reglas:**

a) El alcalde o alcaldesa, los y las tenientes de alcalde y el Pleno existen en todos los municipios.
b) Además de los anteriores es también obligatorio en todo caso la Junta de Gobierno Local.
c) La Junta de Gobierno Local existe en todos los municipios con población superior a 5.000 habitantes y en los de menos, cuando así lo disponga su reglamento orgánico o así lo acuerde el Pleno de su ayuntamiento.
d) La respuesta a) y la c) son correctas.

**9.- 10.000 biztanleko udalerri batean, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio:**

a) Alkateari bere eskumenak erabiltzen laguntzea.
b) Europako legeriak ematen dizkion eskumenak.
c) a) erantzuna eta alkateak edo beste udal organo batek eskuordetu edo legeek ematen dizkioten eskumenak.
d) Bat ere ez da zuzena.

**9.- En un municipio de 10.000 habitantes de población, corresponde a la Junta de Gobierno Local:**

a) La asistencia al alcalde o alcaldesa en el ejercicio de sus atribuciones.
b) Las competencias que le atribuye la legislación europea.
c) La respuesta a) y las atribuciones que el alcalde o alcaldesa u otro órgano municipal le delegue o le atribuyan las leyes.
d) Ninguna es correcta.

**10.- Hondakinen bilketa eman beharreko zerbitzua da:**

a) Udalerri guztietan.
b) 5.000 biztanletik gorako udalerrietan.
c) 10.000 biztanletik gorako udalerrietan.
d) 20.000 biztanletik gorako udalerrietan.

**10.- La recogida de residuos es un servicio que se debe prestar:**

a) En todos los municipios.
b) En los municipios de más de 5.000 habitantes.
c) En los municipios de más de 10.000 habitantes.
d) En los municipios de más de 20.000 habitantes.

**11.- 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, zerbitzu hauek ere eman behar dira::**

a) Kale-garbiketa bakarrik.
b) Eremu publikoak zolatzea soilik.
c) Parke publikoa, liburutegi publikoa eta hondakinen tratamendua.
d) Babes zibila.

**11.- En los Municipios con población superior a 5.000 habitantes, se debe prestar además los siguientes servicios:**
a) Sólo limpieza viaria.
b) Sólo pavimentación de las vías públicas.
c) Parque público, biblioteca pública y tratamiento de residuos.
d) Protección civil.

**12.- Arau-hauste administratiboa diren egintzei aplikatuko zaizkie:**

a) Egitateak gertatzen diren unean indarrean dauden zehatzeko xedapenak.
b) Zehatzeko xedapenek atzeraeragina izango dute ustezko arau-hauslearen alde egiten duten heinean, bai arau-haustearen tipifikazioari, bai zehapenari eta preskripzio-epeei dagokienez.
c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

**12.- A los hechos que constituyan infracción administrativa les serán de aplicación:**

a) Las disposiciones sancionadoras vigentes al momento de producirse los hechos.
b) Las disposiciones sancionadoras producirán efecto retroactivo en cuanto favorezcan a la persona presunta infractora tanto en lo referido a la tipificación de la infracción como a la sanción y a sus plazos de prescripción
c) Las respuestas a) y b) son correctas.
d) Ninguna de las respuestas es correcta.

**13.- Arau-hauste administratiboak honela sailkatuko dira:**

a) Kasu bakoitzean, emaitzen larritasunaren arabera.
b) Legearen arabera, arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.
c) Kasu bakoitzean, organo aholku-emaileak proposatuta eta erruztatuari entzun ondoren.
d) Ez dago sailkapenik, denak larritasun berekoak baitira.

**13.- Las infracciones administrativas se clasificarán:**

a) En cada caso, en virtud de la gravedad de los resultados.
b) Por la ley en leves, graves y muy graves.
c) En cada caso, a propuesta del órgano consultivo y previa audiencia de la persona inculpada.
d) No hay clasificación puesto que todas revisten la misma gravedad.

**14.- Arau-hauste administratiboengatik baizik ez dira zehatuko:**

a) Pertsona fisikoak bakarrik.
b) Pertsona juridikoak bakarrik.
c) Pertsona fisikoak eta juridikoak, legeak jarduteko gaitasuna aitortzen dien beste erakunde batzuen artean.
d) Adinez nagusi diren pertsona fisikoak.

**14.- Sólo podrán ser sancionadas por hechos constitutivos de infracción administrativa:**

a) Las personas físicas exclusivamente.
b) Las personas jurídicas exclusivamente.
c) Las personas físicas y las jurídicas, entre otros entes a los que la ley les reconozca capacidad de obrar.
d) Las personas físicas mayores de edad.

**15.- Zigortua izateko, erantzuleak honako hauek egin beharko ditu:**

a) Doloa edo zabarkeria larria.
b) Dolpa edo errua.
c) Utzikeriazko errua.
d) Arduragabekeria konponezina.

**15.- Para ser sancionada, la persona responsable habrá de haber incurrido en:**

a) Dolo o negligencia graves.
b) Dolo o culpa.
c) Culpa de carácter negligente.
d) Negligencia irreparable.

**16.- Gobernu irekia baliabide hauen bidez bermatzen da:**

a) Gardentasuna sustatzea eta publizitate aktiboko betebeharrak betetzea.

b) Informazio publikoa eskuratzea.
c) Informazio publikoa jendaurrean jartzea, datu ireki gisa.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**16.- El gobierno abierto se garantiza a través de los siguientes medios:**

a) Promoción de la transparencia y cumplimiento de las obligaciones de publicidad activa.
b) Acceso a la información pública.
c) Puesta a disposición de la información pública en forma de datos abiertos.
d) Todas las respuestas anteriores son correctas.

**17.- Informazio publikoa da:**

a) Toki-erakundeek beren eginkizunetan dihardutela prestatu edo eskuratutako informazio oro, edozein dela ere haien euskarria eta adierazpen-modua.

b) Herritarrek identifikazioan, diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan esku hartzeko prozedura, kanal eta organo instituzionalen multzoa.
c) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.
d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

**17.- Se define como información pública:**

a) Toda información, cualquiera que sea su soporte y forma de expresión, elaborada o adquirida por las entidades locales en el ejercicio de sus funciones y que obre en su poder.
b) El conjunto de procedimientos, canales y órganos institucionales, para la intervención de la ciudadanía en la identificación, diseño, ejecución y evaluación.
c) Ninguna de esas respuestas es correcta.
d) Las respuestas a) y b) son correctas.

**18.- Erakunde- eta antolaketa-informazioaren esparruan, gutxieneko gardentasun-betebeharrak hauek dira:**

a) Toki-erakundearen beharrezko organoak eta organo osagarriak.
b) Erakundeko arduradun politiko nagusiei eta gobernu-taldeei buruzko informazioa, curriculumeko datuak barne.

c) Gobernu-plana argitaratzea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**18.- Las obligaciones mínimas de transparencia en el ámbito de la información institucional y organizativa son las siguientes:**

a) Órganos necesarios y complementarios de la entidad local.
b) Información sobre el personal responsable político máximo de la entidad y de sus equipos de gobierno, con introducción de sus datos curriculares.
c) Publicación del plan de gobierno.
d) Todas ellas son correctas.

**19.- Tokiko politika publikoei eta zerbitzu-zorroari buruzko informazioak alderdi hauei buruzko informazioa bilduko du:**

a) Mantentze-lanak eta obrak bakarrik.
b) Aurrekoez gain, uraren kudeaketa soilik.
c) Aurrekoez gain, gainerako zerbitzuak, besteak beste: segurtasuna, hondakinen bilketa eta tratamendua, kale-garbiketa, jarduerak, hirigintza eta ingurumena, kultura, gizarte-zerbitzuak eta emakumeen eta gizonen berdintasuna.
d) c) erantzunekoak, emakumeen eta gizonen berdintasuna izan ezik.

**19.- La información de políticas públicas locales y de la cartera de servicios incluirá información sobre:**

a) Únicamente mantenimiento y obras.
b) Además de las anteriores, gestión del agua exclusivamente.
c) Además de las anteriores, el resto de servicios, entre otros, seguridad, recogida y tratamiento de residuos, limpieza viaria, actividades, urbanismo y medio ambiente, cultura, servicios sociales e igualdad de mujeres y hombres.
d) Las de la respuesta c) con excepción de la igualdad de mujeres y hombres.

**20.- Informazio publikoa eskuratzeari dagokionez:**

a) Eskabidea jaso eta gehienez ere hilabeteko epean jakinarazi beharko da ebazpena.
b) Eskaera jaso eta gehienez ere hiru hilabeteko epean jakinarazi beharko da ebazpena.
c) a) erantzuna zuzena da, eta, gainera, epe hori epe bererako luzatu ahal izango da, eskatutako informazioaren bolumenak edo konplexutasunak hala eskatzen badu.

d) b) erantzuna zuzena da, eta, gainera, epe hori epe bererako luzatu ahal izango da, eskatutako informazioaren bolumenak edo konplexutasunak hala eskatzen badu.

**20.- En materia de acceso a la información pública:**

a) La resolución de la solicitud deberá notificarse en el plazo máximo de un mes desde su recepción.
b) La resolución de la solicitud deberá notificarse en el plazo máximo de tres meses desde su recepción.
c) La respuesta a) es correcta y además dicho plazo podrá ampliarse por igual periodo en el caso de que el volumen o la complejidad de la información solicitada lo requieran.
d) La respuesta b) es correcta y además dicho plazo podrá ampliarse por igual periodo en el caso de que el volumen o la complejidad de la información solicitada lo requieran.

**21.- Adieraz ezazu zein den datu pertsonalen kategoria berezi bateko datu bat.**

a) Telefono-zenbakia.
b) Ideologia.
c) Hatz-marka.
d) Bizilekuaren helbidea.

**21.- Señale cuál se considera una categoría especial de datos personales.**

a) El número de teléfono.
b) La ideología.
c) La huella dactilar.
d) La dirección del domicilio.

**22.- Adierazi ezazu aukera OKERRA. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen mugak:**

a) Segurtasun nazionalaren babesarekin dute zerikusia.
b) Oro har aplikatzen dira, salbuespenak salbuespen.
c) Aldeko printzipio orokorraren salbuespenak dira.
d) Ekonomia- eta merkataritza-interesen babesarekin dute zerikusia.

**22.- Señale la opción INCORRECTA. Los límites del derecho de acceso a la información pública:**

a) Tienen que ver con la protección de la seguridad nacional.
b) Se aplican de modo general, salvo excepciones.
c) Son excepciones al principio general favorable.
d) Tienen que ver con la protección de los intereses económicos y comerciales.

**23.- Zer baieztapen da OKERRA generoaren araberako aurretiazko ebaluazioari dagokionez?**

a) Ebaluazioa egin ondoren, araua sustatzen duen organoak zuzenketa neurriak hartu behar ditu antzemandako desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko.

b) Arau proiektu bat sustatzen duen administrazioko organo orok egin behar du, oro har.
c) Generoaren araberako aldez aurreko ebaluazioa ezin da aplikatu foru- eta toki-administrazioetan.
d) Badira arau eta egintza administratiboak egin beharretik salbuetsita daudenak.

**23.- ¿Qué afirmación es INCORRECTA respecto a la evaluación previa en función del género?**

a) Una vez realizada la evaluación, el órgano que promueva la norma debe incorporar medidas correctoras de cara a eliminar las desigualdades detectadas y promover la igualdad.
b) Debe realizarla, como norma general, todo órgano de la administración que promueva un proyecto de norma.
c) La evaluación previa en función del género no es aplicable en las Administraciones forales y locales.
d) Existen normas y actos administrativos excluidos de la necesidad de hacer dicha evaluación.

**24.- Udalek, beren ohiko jardueran genero-ikuspegia txertatzeko, betebehar hauek dituzte:**

a) Ez dute beren ohiko jarduerari buruzko betebeharrik.
b) Genero-ikuspegia berdintasunaren arloan soilik sartu behar du.
c) Estatistika, inkesta eta datu-bilketan sexuaren aldagaia sistematikoki sartzea.
d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

**24.- Los ayuntamientos, para integrar la perspectiva de género en su actividad ordinaria, deben:**

a) No tienen deberes referidos a su actividad ordinaria.
b) Sólo debe integrar la perspectiva de género en el área de igualdad.
c) Incluir sistemáticamente la variable sexo en las estadísticas, encuestas y recogida de datos que lleven a cabo.
d) Ninguna de las respuestas es correcta.

**25.- Administrazioaren ondare-erantzukizunaren oinarria:**

a) Errua edo zabarkeria da.
b) Doloa eta errua da.
c) Partikularrak kalte antijuridikoa jasaten du.

d) Subjektiboa da.

**25.- El fundamento de la responsabilidad patrimonial de la Administración:**

a) Es la culpa o negligencia.
b) Es el dolo y la culpa.
c) Es que el particular sufra un daño antijurídico.
d) Es de carácter subjetivo.

**26.- Administrazioaren kalte-ordaina lortzeko, partikularrek frogatu behar dute:**

a) Administrazioak errua izatea.
b) Ezinbesteko arrazoirik badagoela.
c) Administrazioak kalte antijuridikoa eragitea.
d) Funtzionarioaren intentzionalitatea.

**26.- Para obtener indemnización de la Administración los/as particulares deben demostrar:**

a) La existencia de culpa por parte de la Administración.
b) La existencia de fuerza mayor.
c) La existencia de un daño antijurídico producido por la Administración.
d) La intencionalidad del/a funcionario/a.

**27.- Kaltetuak alegatzen duen kaltea:**

a) Eraginkorra, orokorra eta juridikoa.
b) Eraginkorra, ekonomikoki ebaluagarria eta banakakoa.
c) Subjektiboa, eraginkorra eta orokorra.
d) Objektiboa eta orokortua.

**27.- El daño alegado por la persona lesionada ha de ser:**

a) Efectivo, generalizado y jurídico.
b) Efectivo, evaluable económicamente e individualizado.
c) Subjetivo, efectivo y generalizado.
d) Objetivo y generalizado.

**28.- Erreklamatzeko eskubidea:**

a) Bi urtean preskribatzen du.
b) Urtebetera preskribatzen du.
c) Urtebetera iraungitzen da.
d) Bi urtean iraungitzen da.

**28.- El derecho a reclamar:**

a) Prescribe en dos años.
b) Prescribe al año.
c) Caduca al año.
d) Caduca en dos años.

**29.- Erantzukizuna erreklamatzeko prozedura:**

a) Ofizioz bakarrik hasten da.
b) Interesdunak eskaturik hasten da.
c) Ofizioz edo alderdi batek eskatuta hasten da.
d) 3 hilabeteko iraupena dute.

**29.- El procedimiento de reclamación de responsabilidad:**

a) Se inicia exclusivamente de oficio.
b) Se inicia exclusivamente a instancia de parte.
c) Se inicia de oficio o a instancia de parte.
d) Tienen 3 meses de duración.

**30.- Erantzukizun prozedura ebazteko epea hau da:**

a) 3 hilabete.
b) 2 hilabete.
c) Hilabete bat.
d) 6 hilabete.

**30.- El plazo para resolver el procedimiento de responsabilidad es:**

a) 3 meses.
b) 2 meses.
c) 1 mes.
d) 6 meses.

**31.- Adierazi ezazu erantzun OKERRA. Toki Erakundeetan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera, Kontratazio Mahaiak:**

a) Gutxienez hiru kide izango ditu.
b) Udalbatzako kide bat edo bertako funtzionario bat izango da buru.

c) Udalbatzako funtzionario bat izango da idazkaria.
d) Behin-behineko edo lan-legepeko langileek inola ere ezin izango dira mahietako kide izan.

**31.- Indica la respuesta INCORRECTA. En las Entidades Locales, según la disposición adicional segunda de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público, la Mesa de Contratación:**

a) Tendrá un número de vocales no inferior a tres.
b) Estará presidida por un miembro de la Corporación o un/a funcionario/a de la misma.
c) Actuará como secretario/a un/a funcionario/a de la Corporación.
d) En ningún caso podrá formar parte de las Mesas personal eventual ni laboral.

**32.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 118. Artikuluaren arabera:**

a) Kontratu txikitzat hartuko dira 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoak, obra-kontratuak direnean.
b) Kontratu txikitzat hartuko dira 10.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean, edo 50.000 eurotik beherakoak, obra-kontratuak direnean.
c) Balio zenbatetsia 40.000 eurotik beherakoa duten kontratuak kontratu txikitzat joko dira obra-kontratuak direnean, eta 15.000 eurotik beherakoa, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean.
d) Kontratu txikitzat hartuko dira 20.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean, eta 60.000 eurotik beherakoak, obra-kontratuak direnean.

**32.- Según el art. 118 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público:**

a) Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros cuando se trate de contratos de suministro o servicios, o a 15.000 euros cuando se trate de contratos de obras.
b) Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 10.000 euros cuando se trate de contratos de suministro o servicios, o a 50.000 euros cuando se trate de contratos de obras.
c) Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros cuando se trate de contratos de suministro o servicios.
d) Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 20.000 euros cuando se trate de contratos de suministro o servicios, o a 60.000 euros cuando se trate de contratos de obras.

OIARTZUNGO UDALA

**33.- Kontratu txikietako kontratazio espedientea:**

a) Espedientea izapidetzeko, kontratazio-organoaren txosten bat egin beharko da, eta bertan arrazoitu egin beharko da kontratuaren beharra, gastuaren onarpena eta dagokion faktura eranstea, eta ez da beharrezkoa argitaratzea.

b) Espedientea izapidetzeko, gastua onartu eta dagokion faktura erantsi beharko da, eta argitaratu egin beharko da.

c) Espedientea izapidetzeko, gastua onartu eta dagokion faktura erantsi beharko da, eta ez da beharrezkoa argitaratzea.

d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**33.- El expediente de contratación en contratos menores:**

a) La tramitación del expediente exigirá la emisión de un informe del órgano de contratación justificando de manera motivada la necesidad del contrato, y la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente y no es necesaria su publicación.

b) La tramitación del expediente exigirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente y es necesaria su publicación.

c) La tramitación del expediente exigirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente y no es necesaria su publicación.

d) Ninguna de las respuestas anteriores es correcta.

**34.- Administrazio publikoek kontratuak egiteko beharrezkoa da:**

a) Dagokion espedientea aurretik izapidetzea, kontratazio-organoak hasiko duelarik, kontratuaren beharra arrazoituz. Kontratugilearen profilean argitaratuko da, eta kontratua arautuko duten administrazio-klausula partikularren eta agindu teknikoen agiria erantsiko zaio espedienteari.

b) Kontratua arautuko duten baldintza administratibo partikularren agiria eta teknikoena onartuz hasiko da.

c) Ondoren, dagokion espedientea izapidetzea. Kontratazio-organoak hasiko du espedientea, kontratuaren beharra arrazoituz. Kontratugilearen profilean argitaratuko da, eta kontratua arautuko duten administrazio-klausula partikularren eta agindu teknikoen agiria erantsiko zaio espedienteari.

d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**34.- La celebración de contratos por parte de las Administraciones Públicas requiere:**

a) La previa tramitación del correspondiente expediente, que se iniciará por el órgano de contratación motivando la necesidad del contrato y que deberá ser publicado en el perfil de contratante, y al que se incorporarán el pliego de cláusulas administrativas particulares y el de prescripciones técnicas que hayan de regir el contrato.

b) Se iniciará aprobando el pliego de cláusulas administrativas particulares y el de prescripciones técnicas que hayan de regir el contrato.

c) La posterior tramitación del correspondiente expediente, que se iniciará por el órgano de contratación motivando la necesidad del contrato y que deberá ser publicado en el perfil de contratante, y al que se incorporarán el pliego de cláusulas administrativas particulares y el de prescripciones técnicas que hayan de regir el contrato.

d) Todas las respuestas anteriores son correctas.

**35.- Kontratazio espedientean behar bezala justifikatuko da:**

a) Soilik lizitazio-prozedura aukeratzea, eta kontratuaren balio zenbatetsia, hura osatzen duten kontzeptu guztiak adierazita, lan-kostuak barne, baldin badaude.

b) Lizitazio-prozedura aukeratzea, eta kontratuaren balio zenbatetsia, hura osatzen duten kontzeptu guztiak adierazita, sartu gabe lan-kostuak, konfidentzialak direlako, kasuan kasuko prestazioak kontratatuz bete nahi den Administrazioaren beharra; eta kontratuaren xedearekin duen lotura zuzena, argia eta proportzionala delako.

c) Lizitazio-prozedura aukeratzea, eta kontratuaren balio zenbatetsia, hura osatzen duten kontzeptu guztiak adierazita, betiere lan-kostuak barne, halakorik bada, eta kontratuaren xedea lotetan ez zatitzeko erabakia, hala badagokio.

d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**35.- En el expediente de contratación se justificará adecuadamente:**

a) Únicamente la elección del procedimiento de licitación, y el valor estimado del contrato con una indicación de todos los conceptos que lo integran, incluyendo siempre los costes laborales si existiesen.

b) La elección del procedimiento de licitación, y el valor estimado del contrato con una indicación de todos los conceptos que lo integran, no debiendo incluirse los costes laborales por su carácter confidencial, la necesidad de la Administración a la que se pretende dar satisfacción mediante la contratación de las prestaciones correspondientes; y su relación con el objeto del contrato, que deberá ser directa, clara y proporcional.

c) Únicamente la elección del procedimiento de licitación, y el valor estimado del contrato con una indicación de todos los conceptos que lo integran, incluyendo siempre los costes laborales si existiesen, y la decisión de no dividir en lotes el objeto del contrato, en su caso.

d) Ninguna de las anteriores es correcta.

**36.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera kontratazio ireki sinplifikatuaren prozedura kasu hauetan erabili ahal izango da:**

a) Balio zenbatetsia 2.100.000 eurokoa edo txikiagoa izatea obra-kontratuen kasuan.

b) Hornidura- eta zerbitzu-kontratuen kasuan, balio zenbatetsia 100.000 eurokoa edo txikiagoa izatea.

c) Hornidura- eta zerbitzu-kontratuen kasuan, balio zenbatetsia 214.000 eurokoa edo txikiagoa izatea.

d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

**36.- El procedimiento de contratación abierto simplificado, según la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, se podrá utilizar si:**

a) El valor estimado sea igual o inferior a 2.100.000 de euros en el caso de contratos de obra.

b) El valor estimado sea igual o inferior a 100.000 euros en el caso de contratos de suministro y de servicios.

c) El valor estimado sea igual o inferior a 214.000 euros en el caso de contratos de suministro y de servicios.

d) Ninguna de las respuestas es correcta.

OIARTZUNGO UDALA

**37.- Larrialdiko kontratu izapidetu batean, prestazioak hasteko epea ezingo da izan honako hau baino luzeagoa:**

a) Hamabost egun.
b) Hilabete.
c) Bi hilabete.
d) 20 egun.

**37.- En un contrato tramitado de emergencia el plazo de inicio de la ejecución de las prestaciones no podrá ser superior a:**

a) Quince días.
b) Un mes.
c) Dos meses.
d) 20 días.

**38.- Obra-kontratu txikian:**

a) Obren aurrekontua ere gehitu beharko da.

b) Indarrean dauden lege-xedapenek hala eskatzen dutenean, obra-proiektua sartu beharko da.
c) Era berean, bulego edo gainbegiratze-unitateen txostena eskatu beharko da, lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten badio.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**38.- En el contrato menor de obras:**

a) Deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras.
b) Se deberá incluir el proyecto de obra, cuando sea requerido por las disposiciones legales vigentes.
c) Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.
d) Todas las respuestas son correctas.

**39.- Kontratu hauetako zeinetan aurkeztu behar da kontratazio-espedientean baliabide-urritasunaren txostena?**

a) Kontratu guztietan nahikoa bitartekorik ez dela dioen txostena aurkeztu behar da.
b) Zerbitzu-emakidetan eta zerbitzuak emateko kontratuetan.
c) Zerbitzu-kontratuetan.
d) Obra-kontratuetan.

**39.- ¿En cuál de los siguientes contratos es necesario aportar en el expediente de contratación el informe de insuficiencia de medios?**

a) En todos los contratos es necesario la aportación del informe de insuficiencia de medios.
b) En los contratos de concesión de servicios y servicios.
c) En los contratos de servicios.
d) En los contratos de obras.

| | |
|---|---|
| **40.- Presako tramitazioa izan dezakete.** | **40.- Podrán ser objeto de tramitación urgente** |
| a) Hondamendiak, arrisku larria dakarten egoerak edo defentsa nazionalari eragiten dioten beharrak direla eta, administrazioak berehala jarduteko beharrari erantzuten dioten kontratuen espedienteak. | a) Los expedientes correspondientes a los contratos cuya celebración responda a la necesidad de la administración de actuar de manera inmediata a causa de acontecimientos catastróficos, de situaciones que supongan grave peligro o de necesidades que afecten a la defensa nacional. |
| b) Atzeratu ezin den premia bati erantzuten dioten kontratuen espedienteak, edo interes publikoko arrazoiak direla-eta esleipena bizkortu behar zaien kontratuen espedienteak. Espedientean, kontratazio-organoak egindako presazko adierazpena jaso behar da, behar bezala arrazoitua. | b) Los expedientes correspondientes a los contratos cuya celebración responda a una necesidad inaplazable o cuya adjudicación sea preciso acelerar por razones de interés público, y el expediente deberá contener la declaración de urgencia hecha por el órgano de contratación, debidamente motivada. |
| c) Hondamendiak edo arrisku larria dakarten egoerak direla-eta administrazioak berehala jardun behar duelako egiten diren kontratuen espedienteak, defentsa nazionalari eragiten dioten beharrak izan ezik. | c) Los expedientes correspondientes a los contratos cuya celebración responda a la necesidad de la administración de actuar de manera inmediata a causa de acontecimientos catastróficos, de situaciones que supongan grave peligro, con la excepción de las necesidades que afecten a la defensa nacional. |
| d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira. | d) Todas las respuestas anteriores son correctas. |

| ERRESERBAKO GALDERAK | PREGUNTAS DE RESERVA |
|---|---|
| **41.- Udalek berdintasunerako planak onetsiko dituzte:** | **41.- Los ayuntamientos aprobarán planes para la igualdad:** |
| a) Udal guztiek egin beharko dute. | a) Deberán hacerlo todos los ayuntamientos. |
| b) 5.000 biztanletik gorakoak bakarrik. | b) Solo los de población superior a 5.000 habitantes. |
| c) 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera. | c) A partir del 1 de enero de 2025. |
| d) Legea indarrean sartu eta 10 urtera. | d) A partir de los 10 años de entrada en vigor de la ley. |

**42.- Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa:**

a) Pertsona fisikoei, juridikoei eta nortasunik gabeko erakundeei aplikatuko zaie.
b) Ez zaie aplikatuko pertsona fisikoei, juridikoei eta nortasunik gabeko erakundeei.
c) Pertsona fisikoei bakarrik aplika dakieke.
d) Europako herritarrei bakarrik aplika dakieke.

**42.- La Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos de carácter personal y garantía de los derechos digitales:**

a) Es aplicable a las personas físicas, jurídicas y entes sin personalidad.
b) No es aplicable a las personas físicas, jurídicas y entes sin personalidad.
c) Es aplicable únicamente a las personas físicas.
d) Sólo es aplicable a la ciudadanía europea.

**43.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazioa emateko betebeharra dute:**

a) Alderdi politikoak, sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak.
b) Urtebetean 100.000 eurotik gorako laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuak, edo, gutxienez, urteko diru-sarrera guztien % 40 laguntza edo diru-laguntza publikoak badira, eta gutxienez 5.000 eurora iristen badira.
c) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
d) Biak eta, gainera, zerbitzu publikoak ematen dituzten edo administrazio-ahalmenak dituzten pertsona fisiko eta juridikoak.

**43.- Según la Ley 19/2013, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, tienen obligación de suministrar información:**

a) Los partidos políticos, organizaciones sindicales y organizaciones empresariales.
b) Las entidades privadas que perciban durante el período de un año ayudas o subvenciones públicas en una cuantía superior a 100.000 euros o cuando al menos el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan carácter de ayuda o subvención pública, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros.
c) Ninguna de las anteriores.
d) Ambas y además, las personas físicas y jurídicas que presten servicios públicos o ejerzan potestades administrativas.

**44.- Udalbatzari ondoko eskumenak dagozkio:**

a) Gobernu-organoen kontrola eta fiskalizazioa.
b) Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea.
c) Zerbitzuak kudeatzeko moduak eta udalekotze-espedienteak onartzea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**44.- Corresponden, al Pleno municipal las siguientes atribuciones:**

a) El control y la fiscalización de los órganos de gobierno.
b) La aprobación del reglamento orgánico y de las ordenanzas.
c) La aprobación de las formas de gestión de los servicios y de los expedientes de municipalización.
d) Todas las respuestas son correctas.

**45.- Alkateordeak:**

a) Alkatea ordezkatzen dute, izendapenaren hurrenkeraren arabera eta kargua hutsik dagoenean, alkatea kanpoan edo gaixorik dagoenean.
b) Udalbatzak izendatzen ditu.
c) Edozein zinegotziren artean izendatzen dira.
d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

**45.- Las y los tenientes de alcalde o alcaldesa:**

a) Sustituyen al alcalde o alcaldesa, por el orden de su nombramiento y en los casos de vacante, ausencia o enfermedad.

b) Son nombrados por el Pleno.
c) Se nombran entre cualquiera de los y las concejales.
d) Ninguna respuesta es correcta.